# Laura Prieto, futbolari lotutako bizitza

**Laura Prieto ermuarra gazte hasi zen futbolaren munduan. Gaur egun 19 urte ditu eta, lesio gogor baten ondorioz, aurten ezin izan du jokatu. Hala ere, entrenatzaile gisa aritu da Eibar taldean.**



Laura Prieto

Laura Prieto, zutik, erdian, bere taldekideekin.

Ez du gogoan, baina 9 edo 10 urterekin Ongarai eskolako taldean jokatzen hasi zen. Zelai berdean aritu zen hasieran eta bere lehen entrenatzaileak Mikel "Mandi" eta Jon izan ziren. Garai onak oroitzen ditu.

Nagusitu ahala Ermuan ez zen neska talderik sortu, beraz Eibarrera jaitsi zen gustuko zuena egiten jarraitzera. Hasieran La Sallen, Urkira sartu aurreko pausoa, Isaac González entrenatzailearekin (11 edo 12 urte izango zituen orduan). Hortik aurrera Urki taldean, eta bukatzeko Eibar taldera igaro zen.

Beste kirol batzuk ere probatu izan ditu. Atletismoan ibilitakoa da, esaterako, nahiz eta esperientzia onik ez izan: Lehenengo lasterketan orkatila bihurtu eta erretiratu behar izan zen. Hasiera ona bai, bai...!

Gainera, lagunak hemengoak ditu, baina kanpoan lagun asko dituela ere aipatzen du, Zaragozan adibidez. Horregatik, agian, Gizarte Integrazioa modulua ikasten ari da Bilbon, eta datorren urtean hori bukatzen duenean, Terapia Okupazioala gradua egiteko asmoa du, Zaragozan behar bada.



Ramón Beitia

### Etorkizunera begira

Egun, etorkizuna urruti ikusten du, eta egunerokoa bizitzea nahiago du. Atzera begiratzean, aldiz, baditu oroitzapen onak futbolean: lagun berriak egin baititu urte askotan, talde askotan ibilia da eta 2. mailan jarduteko aukera ere izan du. Alde txarra ere badu: lesioa.

Berau gogorra izan da Laurarentzat. Hasieran mingarria izan zen, eta bursitisa eta tendinitisa zituela esan zioten. Izan ere, infiltrazioren bat egin diote jada hantura jaitsi dadin.

Dena den, zelaira bueltatzeko gogotsu dago, eta aurrerago itzuliko delakoan dago, lesio horrek bi urterako geldialdia ekarri baitio.

Amaia Arginzoniz

OINAK
LEIRE MAYORA
PODOLOGOA
Erdikokale 1, 1. A
48260 Ermua
✆ 943 17 47 44




Komunitateak
San Pelayo
Aholkularitza
juridikoa
Tel. /Fax. 943 17 15 65 / 943 17 25 04
San Pelaio 6-A (Eroski gainean) 46 P.K. - Ermua


PUB YOMY
Zubiaurre
kalearen
bihotzean

egolek
electrizitatea
iluminazioa
M. de Valdespina 14 · ERMUA
943 17 00 61 · egolek@hotmail.com